Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Egun honetako Alkatetza dakaritzaren 954 zn ebazpenaren bidez Onartua

Aprobado por la Alcaldía Presidencia por resolución nº 954 de este día

IRUNGO UDALA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN EL SECRETARIO

2021ZAUN0052

IRUNGO HAURREN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO "HAURRAK PARKEAN" DINAMIZAZIO-ZERBITZUA PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ KONTRATATZEA

CONTRATACIÓN MEDIANTE PROCEDIMIENTO NEGOCIADO SIN PUBLICIDAD DEL SERVICIO DE DINAMIZACIÓN "HAURRAK PARKEAN" PARA INCREMENTAR EL USO DEL EUSKERA ENTRE LAS NIÑAS Y NIÑOS DE IRUN

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	EUSKARA ARLOA / AREA DE EUSKERA
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2021ZAUN0052

Dokumentua baliozkotzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Baliozkotzapen kodea/Código de verificación: LRO3-5750-J3OG-73N8

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iban Eguzkitza Luna DIRECTOR ÁREA EUSKERA (26/07/2021 09:52 CEST)

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

2021ZAUN0052

I Eranskina — *INSTALAZIO ETA BALIABIDE MATERIALEN ZERRENDA*
Anexo I — RELACIÓN DE INSTALACIONES Y MEDIOS MATERIALES

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA:**	EUSKARA ARLOA / AREA DE EUSKERA
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE:**	2021ZAUN0052

DESKRIBAPENA DESCRIPCIÓN	*KOPURUA* CANTIDAD	*HASIERAKO HORNITZAILEA* PROVEEDOR INICIAL		*MANTENIMENDUAREN ARDURADUNA* RESPONSABLE DEL MANTENIMIENTO		*MANTENTZEKO EDOTA ORDEZKATZEKO KOSTUAK* COSTES DE MANTENIMIENTO Y/O REPOSICIÓN		*KONTRATU AMAIERAN UDALARI JABETZA-ITZULERA* REVERSIÓN AL AYTO. AL FINAL DEL CONTRATO	
		UDALA AYTO.	*ESLEIPENDUNA* ADJUDICATARIO	*UDALA* AYTO.	*ESLEIPENDUNA* ADJUDICATARIO	*UDALA* AYTO.	*ESLEIPENDUNA* ADJUDICATARIO	*BAI* / SI	*EZ* / NO
		☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
		☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
		☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
		☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
		☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
		☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
		☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
		☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

2021ZAUN0052

HITZAURREA

HAURRAK PARKEAN programa aldatu edo bertan behera utzi ahalko da, noiznahi, KORONABIRUS SARS COV2ren (COVID 19) ondoriozko osasun egoerak eta haren kontura kaleratzen diren arau, lege eta/edo dekretuek hori gomendatzen badute edo horretara behartzen badute.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen helburu nagusia da HAURRAK PARKEAN garatzeko lanak kontratatzea, Plegu administratiboetan eta plegu honetan ezarritakoaren arabera.

2.- HAURRAK PARKEAN EGITASMOAREN HELBURU OROKORRA

HAURRAK PARKEAN haurren artean euskararen erabilera areagotzea helburu orokorra duen egitasmoa da: jolasen bitartez, modu naturalean eta dibertigarrian, edozein haurrek parte har dezakeen lekuetan, nagusiki parketan bideratutakoa. Honakoak kontuan hartuko dira:

- Familiei eta haurrei euskaraz jolas egiteko baliabideak eskaintzea.
- Familiak eta haurrak euskararen inguruan biltzeko gune bat eskaintzea.
- Irungo jolasguneetan euskararen presentzia areagotzea

3.- BURUTU BEHARREKO LANAK

PROIEKTUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Egitekoen zehaztapena

- Saioak haurrek jolasten duten hiriko parkeetan izango dira.
- Euskara Arloak erabakiko du zein tokitan egingo diren "Haurrak Parkean" egitasmoaren saioak. Dena dela, hilabete lehenago, gutxienez, jakinaraziko dio esleipendunari hurrengo txandako saioak non izango diren.
- Saioak ordubetekoak izango dira, eta adinaren arabera banatuko dira. Saio batzuk 3-5 urte arteko haur eta guraso edo familiartekoei zuzendutakoak izango dira eta beste saio batzuk 6-10 urte artekoei zuzendutakoak. Hala ere, auzo bateko egoerak hala eskatzen duenean, haur gutxi daudelako edo guztiek elkarrekin jolas egiten dutelako, saio bakar batean bildu ahal izango dira 3-10 urte arteko haur guztiak.
- Saioak euskara hutsez izango dira

Saioen edukia:

- Ezagutza-jolasak, esku jolasak, animazio-jolasak, goma edota sokarekin jolastekoak... eta adinerako egokiak diren beste hainbat izango dira. Haurrek kalean bere kabuz euskaraz jolasteko aukera ematen duten jolasak garatuko dira.
- Urtean hiru txanda antolatuko dira, hilabeteko iraupenarekin, neguan, udaberria eta udazkenean; neguan nahiz udazkenean 4 parkeetan eta udaberrian 5 parkeetan.
- Txanda eta parke bakoitzean lau saio eskainiko dira 3-5 urte artekoentzat eta beste 4 saio 6-10 urte artekoentzat guztira txanda eta parkeko 8 saio direlarik.
- Saioak ordubetekoak izango dira.
- Aurrekoa kontuan izanik urte osoan gutxienez Euskara Arloak erabakitako lekuetan eta adin tarteetan 104 saio guztira izango dira. Edonola ere lizitazio preziotik esleipen

preziora, saio -kopurua handitzeko adinako beherapen bat izango balitz, saio kopuru hori handitu egin liteke, betiere lizitazio honetarako ezarritako aurrekontu-kontsignazioaren mugaren barruan, kontratu-aldaketa izaera izan gabe. Kasu horretan Euskara Arloarekin koordinazioan, handitu beharreko saioak, parkea, eta adin taldea zehaztuko dira. Saioak egiteko orduak, eguna, eta lekuak – Saioak egiteko orduak, eguna, eta lekuak auzoko euskara batzordearekin, balego, auzo elkarteekin eta Euskara Arloarekin koordinatuta erabakiko dira, – Saio bakoitzean gutxienez 2 begirale egongo dira. Hauek C1 euskara maila edo baliokidea egiaztatua izango dute eta Hezitzaile titulua edo baliokidea den formazioa izango dute. – Saioa egiten den unean, saioa parke horretan egiten ari dela ongi seinaleztatua egongo da, parke horretatik pasatzen den edonork jakiteko moduan. Horretarako, euskarri egokiak erabiliko dira eta begiraleek ongi ikusteko moduko elastikoak jantzita edukiko dituzte. Saioa hasi baino 10 minutu lehenago musika jarriko da parkean eta informazioa jasotzen duten esku-orriak banatuko zaizkie parkeko gurasoei. – Saioen koordinazioa, komunikazioaz eta antolaketa lanetarako koordinatzaile bat egongo da. Honek ere C1 euskara maila edo baliokidea egiaztatua izango du eta Hezitzaile titulua edo baliokidea den formazioa izango du.
– Enpresa esleipendunak jarduera aurrera eramateko edukien programaren eta egutegiaren proposamena egingo du topaketaren aurretik.
– Irungo Udalak, egokitzat hartzen badu, topaketa egiteko lekua Irungo beste edozein toki eta/edo udal ekipamendura aldatzeko eskubidea izango du.
– Kontratatutako enpresak jarduera ordezteko edo aldatzeko aukera jasoko du, COVID-19ren kutsaduraren hedapenari aurre egiteko. Kontratatutako enpresak bilkurak egokitzeko proposamen bat aurkeztu beharko du. Behar izanez gero, protokoloa aurkeztu beharko luke.
– Egitasmoaren aurkezpen publikoa egingo da. Enpresa kontratatua bertan egon beharko du eta haren ardura izango da egitasmoaren nondik norakoak azaltzea.
– Txanda bakoitzaren bukaeran, aurrera eramandako jardueraren Memoria prestatu eta aurkeztuko du enpresa kontratatuak. Memorian, besteak beste, honakoak jasoko dira: gogobetetze-maila eta euskararen erabileraren ingurukoak parkeka.
– Elementu grafikoetan Irungo Udalaren logotipoa txertatu beharko du enpresa esleipendunak.
4. GIZA BALIABIDEAK
– HAURRAK PARKEAN proiektua garatzeko enpresa esleipenduneko koordinatzaileak eta hezitzaileek C1 euskara maila edo baliokidea egiaztatuta izango dute, eta hezitzaile-titulua edo prestakuntza baliokidea izango dute.
– Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 legea betez, adingabeekin zuzeneko harremana izanez jarduten duten langileek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean sartuta ez daudela egiaztatzen dena.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

5. BALIABIDE MATERIALAK

- Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu helburu eta ekintzak bideratzeko baliabide materialak. Aurreikusi gabeko beharrik sortuko balitz Irungo udalak bere gain hartuko ditu betiere programaren hobe beharrerako balitz, aldez aurreko Euskara Arloko oniritziarekin.

6. BETEBEHARRAK

- Laneko istripuei, laneko segurtasun-neurriei eta Gizarte Segurantzari buruzko guztia esleipen hartzailearena izango da.
- Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da.
- Enpresak zerbitzua emateko jarduerak eragindako kalte eta galerak ordaindu beharra dauka.
- Kontratistak honako ardurak ditu: egindako lanek eta emandako zerbitzuek kalitate teknikoa izatea eta, kontratua gauzatzean, eginbeharren bat ez egiteak, hutsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Administrazioari zein besteri eragin diezazkieten ondorioengatik erantzutea. Kontratistak kasu bakar batean ez du erantzun beharrik izango: akatsak Administrazioak emandako aginduen edo ezarritako baldintzen ondorio zuzena direnean.
- Enpresa esleipendunak bere izenean eskatu beharko ditu behar dituen administrazio lizentzia edo baldintzak.
- Enpresa esleipendunak kontratatutako zerbitzuei buruz dakizkien datu guztiak isilpekoak izango dira eta, beraz, ezin izango ditu inola ere zabaldu. Zabalduz gero, kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio bai Irungo udalari bai isildu beharra hausteak ekarritako kalte eta galerek erasandakoei.
- Esleipendunak, lansari osagarririk jasotzeko eskubiderik ez duela, kontratua ongi garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, hala nola, lan edo informazio bileretara joatea. Betebehar hori izango du berme epea bukatu arte.
- Enpresa lizitatzaileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatuko ditu. Ildo horretatik, ez du hizkuntza modu sexistan erabiliko, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatu beharko du.